



FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure enpresa arrakastatsua izan dadin, baliabide batzuk izan behar ditu, hala nola, baliabide fisiko zein intelektualak, giza baliabideak eta finantza baliabideak.

Giza baliabideei dagokionez, nahiz eta bazkideak proiektua martxan jartzeko eta honen funtzionamendua bermatzeko nahikoa izan, gure langileak ezinbestekoak dira gure helburuak aurrera egin dezan. Hiru bazkide garenez horrela banatu ditugu zeregin nagusiak: Lehenengo bazkideak, diru kontu eta administrazio lanak aurrera eramaten ditu, bigarren bazkidea komunikazio arloaz arduratzen da, sare sozialen ezagutzaz baliatuz. Hirugarrena berriz, lagileen antolakuntzan eta plagintzan zentratzen da. Hala ere, bada guztiok amankomunean dugun eginkizun bat: harrera-planak, enpresan integratzea errazteko eta balio eta helburuen parte sentiarazteko jarduerak.

Baliabide intelektualei dagokionez, garrantzitsuenak Gmail-a eta sare sozialak (Instagram eta Tik Tok) izango dira.

Baliabide fisikoei dagokionez, bulego txiki bat alokatuta dugu, gure enpresa hiru bazkidek osatzen dugunez. Ez ditugu laguntzak, hau da, hiru bazkideon artean ordaintzen dugu alokairua, hileroko 800€. 27m²-ko azalera du, baina altzaririk ez dituen hainbat baliabide beharko ditugu, hala nola; mahai luze bat, bulegoko aulkiak, telefonoa, ordenagailuak eta material korrontea, besteak-beste.

Bulegoaz gain, jaialdian bertan Stand desberdinak izango ditugu gure zerbitzua bezeroengana errazago iritsi dadin. Guztira hiru Stand izango ditugu jaialdian zehar, horrela kideok banatuta egongo gara, bakoitza postu batean egongo garelarik. Lehenengoa kanping aldean kokatuta egongo litzateke, bigarrena jaialdiaren sarrera nagusian, eta azkenik, hirugarrena, eszenatoki handienaren inguruan.